



**JULIAN ALUSTIZARI AZKEN AGURRA.** Gaur arratsaldean emango diote azken agurra, 1955az gerotik bizi izan den leku berean: Arantzazun.

# BIZINAHIAREN PENAK ETA NEKEAK

**JULIAN ALUSTIZA HIL DA, 'LIHOAREN PENAK ETA NEKEAK', 'EUSKAL BASERRIAREN INGURUAN' ETA 'BIZINAHIAREN ARNASA' LIBURUEN EGILEA**

JUAN LUIS ZABALA

Penarik eta nekerik gabe, zahardadeaz aparte gaitz jakinik gabe, atzo goizaldean itzali zen, 91 urte zituela, Julian Alustiza *Aztiri* idazlea, *Lihoaren penak eta nekeak* liburu gogotik laudatuaren egilea. Gaur egingo dira haren hileta elizkizunak, 17:30ean, azkeneko 50 urteak bertan bizi izan ondoren atzo hil zen leku berean: Arantzazun.

Gabiriako Aztiria auzoko Exce-

txo baserrian sortu zen Julian Alustiza, 1913ko urriaren 30ean, eta hortik hartu zuen *Aztiri* ezizena. Erriberri filosofia eta teologia ikasi ondoren, 1936an apeztu zen.

36ko gerra hasi aurretik hasi zen olerkiak idazten, eta gero ere eutsi zion zeregin horri, Valladoliden eman zituen urteetan batik bat, 1937tik 1943a bitarte. *Egan*, *Euzko Gogoa*, *Arantzazu* eta *Goiz-Argi* aldizkarietan eman zituen argitaratuak.

Lizardi, Lauaxeta, Orixe eta besteren lanak ezagutu zituen arren, Manuel Lekuonaren eragina nagusitu zuen Alustizaren garai hartako poemetan. «Guri batez ere indarra eman ziguna Manuel Lekuonaren *Literatura oral vasca izan zen*», adierazi zuen Alustizak *BERRIAK* iazko azaroaren 12an argitaratutako elkarrizketan. «Ni bizitza osorako markatu ninduen liburu horrek».

Sermolari onaren fama izan zuen 36ko gerraren osteko lehen urteetan. Gero, sermoigintza utzita, baserri askotan jasotako informazioa bilduz osatu zuen *Lihoaren penak eta nekeak*, lihoaren inguruko lanei buruzko obra etnografikoa. Arantzazuko Frantziskotarren argitaletxeak 1981ean kaleratu. Oso harrera ona izan zuen liburuak. Alustizak berak egindako adierazpenek erakusten dutenez: «Badira liburu hiru aldiz irakurri duten baserriarrak. Neuk ere noizean behin irakurtzen dut, eta gauza batzuk harritu-egiten naute, beste batek idatzia balira bezala».

**Entzun eta entzun, gero giro horretatik kontatzeko**

Alustizaren bigarren liburuaren etnografiako lana da funtsean: *Euskal baserriaren inguruan* (Arantzazu, 1985). Lan hori, *Lihoaren penak eta nekeak* bezala, baserri askotan izan ondoren idatzi zuen: «Nik entzun, entzun eta entzun egiten nuen, eta zale-tu egiten nintzen, usoaik ezkurre-ra bezala. Entzun, entzun eta entzun, milaka aldez entzun, eta giro hartatik kontatu».

Hirugarren liburuaren iaz eman zuen argitara Alustizak, eta *Bizinahiaren arnasa* eman zion izenburu. Aurreko biak baino pertsonalagoa da, poemak, oroitzapenak eta umorezko istorioak biltzen baititu, aurretik hainbat aldizkaritan eta Arantzazuko egutegian argitaratutakoak gehienak. Paulo Agirrebaltzategi lagundu zion liburuaren apailetzko lanetan: hitzaurrea ere idatzi zuen Agirrebaltzategi liburuaren atarirako.



**JULIAN ALUSTIZA** idazlea (Gabiria, 1913-Arantzazu, 2005). Arantzazun, iazko azaroaren 11n. (JUAN LUIS ZABALA/AGAZZI PRES)

**Iritzia** ① PAULO AGIRREBALTZATEGI (Idazlea)

## Sermolari poeta

**J**ulian Alustiza zuen izen sermolariak; *Aztiri* izengoitia zuen poeta eta idazleak. Atzo hil zen Arantzazun, 91 urte zituela.

Duela egun gutxi aitortu zidan irribarrez eta lasai: «Penatxo dut orain, oinez ibiltzerik ez izate honekin —egun batzuk lehena go erorita egona zen, eta zangoak makaldu zitzaizkion nonbait—. Dena dela, niri berdin zait gaur hil ala bihar hil». Ez gaur eta ez bihar: atzo hil zen! Lokuluxka samurrean sartzen zelakoan edo.

Bisitalditxo hartan bertan eman zidan bere bizitzako fraide-gela izandakoa miatu eta bere sermoi-karpetak ikusteko baime-na: «Egin ezazu nahi duzuna! Erre nahi badituzu, erre». Eta bere gelako giltza eskuratu zidan. Joseba Etxeberria Arantzazuko liburuzainak lehen garbiketak eginak zituen azken egunotan dagoeneko, eta hamabost

sermoi-karpetak mardul edo, bilduak eta jasoak. Horiei buruzko argibiderik eskatzeko betarik ez digu eman Julianek.

Bizitzan barna banatu zituen milaka sermoi eta hitzaldiren aztarna oparora aurkitu ahal izango dugu eskuz idatzitako milaka orri horietan. Baserriarrak gari-eskukadak soroan banatzen dituen dotorezia bera-ekin, banatzen eta zabaltzen zituen Julianek jario dotorez eta patxadaz bere sermoietako esaldiak.

Aztertzeokoak izango dira horiek, sermoigintza klasikoaren eta euskal hizlaritza poetikoaren aldetik. Sermolaria izan zen Julian Alustiza bere urte luzetan, Gaztelan eta Nafarroako Erriberan, aurrenik; Arantzazun, Gipuzkoako herrietan eta Nafarroa mendialdekoetan, ondoren. Ahots sakon, lasai eta dotoreko sermolari eta misolaria, mezu zorrotza —eta batzuetan iluna ere

bai—, metaforez, atsotitzez, hitz-jokoez eta ipuinez jantzita banatzen zekiena.

Izan ere, poeta izan zen Julian, sermolari izan aurretik, eta ondoren ere poesia idazten jarraitu zuen, apaiz eta fraidetzako misoak astirik uzten zionean. Orain urtebete argitaratu zuen bere hirugarren liburuak, *Bizinahiaren arnasa*, idatzitako olerki guztien bildumaren ondoan bizitzako oroitzapenak biltzen dituen. Beste biak, *Lihoaren penak eta nekeak* eta *Euskal Baserriaren inguruan* ere, poesiaz beteriko liburuak dira, informazio etnografiko ugari eta jakingarria ematearekin batera. Atseginak eta irakurterrazak Julianen liburuak, haren aldizkarietako artikulu ugariak bezala.

Gerra ondoko urteetan itzaropenez bizitzeko arnas bila euskarazko olerkiak idazten zituen Julian aztiriarrak azken arnasa eman zuen atzo Arantzazun. Agur, Julian.